

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Aurizberri, Barañain, Martzilla, Noain eta Vianako liburutegi publikoak Estatuko lehiaketa batean saritu dituzte

Haur eta gazteen literaturako 180 tituluk osatutako sorta bateko saria ematen zaie, 50.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietako liburutegietan irakurketa sustatzeko

Jueves, 27 de noviembre de 2014

Aurizberri, Barañain, Martzilla, Noain eta Vianako liburutegiek [XV. María Moliner Irakurtzera Animatzeko Kanpainaren](#) sariak jaso dituzte. Ekimen hori Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak, Espainiako Udalerri eta Probintzien Federazioak (FEMP) eta Coca-Cola fundazioak antolatzen du, eta, haren bidez, udal-liburutegiek erabiltzaileentzako doako jarduerak antolatzen egindako ahalegina saritzen da.

Sari horrekin zentro horiei haur eta gazteen literaturako 180 tituluk osatutako sorta bat ematen zaie honako proiektu hauengatik: "*Gurpil gaineko irakurketak*" (Aurizberriko liburutegia), "*Hamar urtez Afrikatik mugitzen...Barañainen*" (Barañaingo liburutegia), "*Martzellako liburutegi publikoa: elkargune bat*" (Martzellako liburutegia), "*Irakurtzearen balioa (erantsia)*" (Noaingo liburutegia) eta "*Liburutegi publikoan, denetarik denentzat!*" (Vianako liburutegia).

XV. María Moliner Irakurtzera Animatzeko Kanpainak 12.000 euroko sari bereziak eman dizkie Soto del Barcoko Ildefonso Fierro Ordóñez (Asturias), Jaramako El Pilar de Fuente el Saz (Madrid) eta Torre Pachecoko (Murtzia) liburutegiei.

Aurizberriko Liburutegi Publikoa: "Gurpil gaineko irakurketak"

1997. urtetik, [Aurizberriko liburutegiak](#) Berragu izeneko etxez etxeko liburu-maileguaren zerbitzua ematen du. Aezkoa, Artzi, Erro, Luzaide,



Barañaingo liburutegiak "Afrikatik mugitzen gara" kanpaina antolatzen du.

Auritz eta Aurizberriko 400 erabiltzaile baino gehiagok beren etxeetan bertan alea jasotzeko abantaila dute. Hamazazpi urte baino gehiagoz funtzionatzen ari den onura horrek liburutegiko zerbitzuen erabilera erraztea du xede geografikoki oso sakabanatuta eta zahartutako biztanleria duen zonalde batean.

Mailegu-proiektuak Berragu izena hartu zuen, eta izen horrek Aurizberriko mendi bati egiten dio erreferentzia. Banakako erabiltzaileen etxez gain, liburu-maileguak ere zerbitzua honako hauei ere ematen die: udalerrietako eskolei, Irati Irratiari edo Ama Ibañeta adinekoen egoitzari. Talde horiek aldi berean 50 ale hartzeko aukera dute, bai eta ikus-entzunezko 25 euskarri edo aldizkari ere. Liburutegiak ibilbideak finkatu ditu eta astean behin, Mari Mar, liburuzainak, lau ibilbide osatzen ditu udalerrri bakoitzean materiala uzteko: hilean 250 bat kilometro.

Barañaingo Liburutegi Publikoa: "Hamar urtez Afrikatik mugitzen"

2014. urte honetan [Barañaingo liburutegiak "Afrikatik mugitzen gara" elkartasun-jardunaldi](#)en hamargarren edizioan parte hartu du era aktiboan. Ekimen hori liburutegi horrek jarri zuen abian 2005ean, eta udalerriko hainbat talde nahiz elkarteek parte hartzen dute bertan, bai eta zenbait udal-zerbitzuek ere.

Jardunaldien ekitaldi nagusia urtero ekainean antolatutako erabilitako liburuen azokatxo solidarioa izaten da, eta jardunaldi horiek helburu bikoitza dute: alde batetik, Nakupenda Africa elkarterako funtsak biltzea; egoitza udalerrri horretan duen GKE da, eta Afrikako hainbat herrialdeetako lankidetzeta-proiektuei laguntzen die. Bestetik, herrialde horietako errealitate eta arazoan gainean herritarrek sentsibilizatu nahi dira. Arrazoi hori dela-eta, denbora horretan guztian, hitzaldiak, mahai-inguruak, egile afrikarren nobelei buruzko irakurketa-klubak, zine-forumeko zikloak, heldu nahiz haurrentzako narrazio-saioak, kontzertuak... antolatu dira.

Hasiera batean, salgai jartzen dira: bigarren eskuko liburuak, Udalaren tailerretan egindako zeramikazko objektuak, bigarren eskuko jostailuak (guraso elkarteek egiten dute), eta proiektuetan lan egiten duten (horietarako dirua biltzen da) Guraso Zuriak beraiek emandako eskulangintza afrikarreko objektuak. Pixkanaka beste erakunde batzuk gehitu zitzaizkien, esaterako: Barañain Auditorioa eta Musika Eskola, eta arratsalde guztian kontzertu eta erakustaldiak egiten dituzte jendea azokatxora erakartzeko. Ludotekek txikienezako jokoak antolatzen dituzte, auzoko gazte-taldeek rap-a abestuz edo hip-hop dantzatzu parte hartzen dute, edo paperezko errotatxoak eginez (Santa Maria parrokiako katekesi-taldeak arduratzen dira); haiek doan banatzen dira eta kanpainaren ikur bihurtu dira. Iaz, gainera, Alaitz institutuko ikasleek txikienei ipuin afrikarrak kontatzeko eskaini zuten beren burua. Finean, liburutegiak antolatutako ekimen txiki bat da, eta herritarrek bertan parte hartzea lortu du.

Martizillako Liburutegi Publikoa: "Elkargune bat"

[Martizillako liburutegi publiko](#)ak, "Liburutegi publikoa, elkargune bat" proiektuarekin, hainbat jardura egiten du normalean: [eskolako bisitak](#), ipuin-kontalariak, [irakurtzeko klubak](#), lehiaketak, [irakurtzeko gidak](#), liburutegi-igerilekua, tailerrak... Liburutegi hau bera anfitrioi izan da berriki [IV. Nafarroako Liburutegi Publikoen Irakurketa Kluben Topaketan](#).

Noaingo Liburutegi Publikoa: "Irakurtzearen balioa (erantsia)"

[Noaingo Liburutegi](#)ak 2013an ekimen bat abian jarri zuen eta, haren bidez, liburutegia gune solidario batean bihurtu nahi zen. Horretarako, era zehatzagoan laguntzea erabaki zuen bere herrikideen zio berezietan babesa emanez; hala, dohaintzen bidez emandako liburuak euro batean saldu zituen, eta



bildutako dirua urtero hautatuko zen proiektuari emango zitzaion. 2013an, [Dravet Sindromearen Fundazioa](#) izan zen proiektua; fundazio horrek lana gogor egiten du gaitz hori duten haurren eguneroko bizimodua (eta etorkizuna) ez dadin hain gogorra gertatu eta itxaropen handiagokoa izan dadin. 2014an irakurtzeko balioa (erantsia), [Nafarroako Autismoaren Elkartera](#) izango da.

Irakurtzeko balioaren (erantsia) asmoa ekonomikoa baino zabalagoa da: gure hurbileneko ingurunearen errealitatea herritarrei hobeto ulertaraziko dien gai bat ikusaraztea. Kultur Etxearekin koordinatuta, ekimen honek lortu du denbora honetan guztian liburutegiko instalazioek proiektu horiek hedatzen laguntzea, eta pertsona askok ekintza solidario horien berri izatea eta haietan parte hartzea.

Vianako Liburutegi Publikoa: "Liburutegi publikoan, denetarik denentzat!"

[Vianako Liburutegi Publikoa](#) irakurtzera animatzeko egindako proiektuak "Liburutegi publikoan, denetarik denentzat!" du izena, eta irakurtzera animatzeko 30 ekintzek osatzen dute, adibidez: haurrentzako ipuin-kontalariak, eskolako bisitak (urtarriletik ekainera asteen behin, urritik abendura ere), hiru argazki-erakusketa eta liburu bitxiak beste bat (Lizarrako museoetako liburutegietatik), helduentzako irakurtzeko iradokizunak (bi zentro interesgarri ia hilabetero), zinema-lehiaketa bat, helduentzako literaturako beste bat, haur-irakurketarako beste bat, eta bertan erabiltzaileen partaidetza funtsezkoa gertatzen ari da arrakasta izan dezan.

Proiektuaren barnean dago ere, erabiltzaileen arteko komunikazioa [Facebook](#) eta [blog](#)-aren bidez, berrikuntzak dakartzan hileroko buletin-banaketa eta Vianako saltoki nahiz erakundeetan banatutako efemerideen egutegi bat ere.

Animazio-proiektua egiteko, honako hauen laguntza jaso da: Vianako Udala (turismo-bulegoa, gazte-zentroa...), Vianako osasun-zentroa, Vianako Ricardo Campano HI, Del Caminoko DBHI eta Erentzun ikastola, Lizarrako museoak (Gustavo de Maeztu, Karlismoarena eta Etnologikoa), eta Vianako hainbat elkarte.